

ILUSIOA

URTEKO
TXOSTENA
IHOB
2010

ZABALTZEN

AURRERAKUNTZAREN ALDE,
GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDE
ETA BIKAITASUNAREN ALDE



Herri-baltza
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA


ARGITARATZAILEA:
Ihobe, Ingurumen
Jarduketarako Sozietate
Publikoa
Urkixo zumarkalea
36, 6^a
(Bizkaia Plaza)
48011 Bilbo
Tel.: 94 423 07 43
Fax: 94 423 59 00



EDIZIOA:
2011ko ekaina



**SORKUNTZA, DISEINUA
ETA DIAGRAMAZIOA:**
Canaldirecto
www.canal-directo.com



ITZULPENA:
Traductores
e Intérpretes S.A.



LEGE-GORDAILUA:
XXXXX



Liburu honen edukiak,
oraingo edizioan,
litzentzia honetan
argitaratu dira:
Aitortu – Ez
merkataritzarako –
Lan eratorririk gabe
3.0 Unported
(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Txosten hau egiteko,
% 100ean birziklatutako
papera erabili da, klororik
gabea. Erabilitako paperak
egiaztagiri hauek ditu:
Aingeru Urdina, Europako
Iparraldeko Beltxarga eta
Europako Etiketa Ekologikoa.



URTEKO
TXOSTENA
IHOBE
2010

ILUSIOA

ZABALTZEN

AURRERAKUNTZAREN ALDE,
GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDE
ETA BIKAINTASUNAREN ALDE



AURKEZPENA



EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK



BIKAINTRASUN ETA BERRIKUNTZA, MUGIARAZTEN GAITU, MOTIBATZEN GAITU



BALIODUN PERTSONAK, PERTSONEN BALIOA



2010ean URRATUTAKO BIDEA



EKITALDIAK ETA JARDUNALDI TEKNIKOAK



2010eko ARGITALPENAK



IHOBE 2010 ZENBAKIETAN



ARLO EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

AURKEZPENA

Ihobe Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa osatzen duten 58 pertsonen lanak osoko zentzua hartzen du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin egunero lankidetzan aritzean eta, halaber, Sailari egunero babesa ematean, Jaurlaritzak definitutako ingurumen-politiken garapena sustatzearren.

2010. urtean, bi izan dira Ihoberen jardueran izandako ekimenik garrantzitsuenak, biak ere estu lotuta daudela Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-helburu estrategikoei. Alde batetik, **EcoEuskadi2020 Euskadiko Garapen Iraunkorraren Estrategia** prestatzeko prozesuari hasiera ematea, eta bestaldek, **Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa** abian jartzea.

Lehen ekimenari dagokionez, uste osoa dugu **EcoEuskadi 2020**

Estrategiak Euskadi kokatuko duela Europako eskualde aurreratuenen artean, iraunkortasunaren alorrean; izan ere, guztien onura lortu nahi duen proiektu bat da, eta Euskal Autonomia Erkidego osoak parte hartu du bertan. Estrategia taxutze-lanetan, ekonomiaren, gizartearen eta erakundearen esparruetako 4.000tik gorako eragilek parte hartu dute, etorkizuneko Euskadiri buruz duten ikuspegia azaltzeko. **EcoEuskadi 2020** ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren iraunkortasunaren alorrean Euskadin burutu behar diren politika



PILAR UNZALU

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua

Ihobeko presidentea



FERNANDO BARRENECHEA

Ihobeko zuzendari nagusia

publikoak bideratuko dituen eta alorreko politikak garapen iraunkorraren ikuspegitik definitzen lagunduko duen tresna da.

Euskadi iraunkortasunaren arloan erreferentziako eskualde bihurtzeko, ezinbestekoa da gizartearen esparru guztien konpromisoa izatea, eta bereziki industria- eta enpresa-ehunaren konpromisoa. Xede hori erdiesteko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Ihoberekin lankidetzan sustatu duen **Ekoeraginkortasuna Euskal**

Enpresan 2010-2014 Programak euskal enpresei laguntzen die duten lehiakortasuna hobetzen, beren prozesuetan ingurumenaren alderdia gehituta.

Jomuga haxe da: 2014. urtean Euskadiko mila enpresak aipatutako programaren bidez lehiakortasun-baldintza hobek izatea, erronka teknologikoei aurre egin ahal izateko.

**Ihobe;
ilusioa
eta helburuak**

lhobe
Ingurumen
Jarduketarako Sozietate
Publikoaren estatutuen arabera,
lhoberen Administrazio
Kontseilua erakundearen
erabaki estrategikoak
hartzen dituen
organoa da.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Kontseiluan aurkezten
dira lhoberen aurrekontuak
eta programak, eta ekitaldi
bakoitzari dagozkion kontuak,
balantzeak eta kudeaketari buruzko
memoria onartzen dira.

Sozietateko Presidentziako burua
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen,
Lurralde Plangintza, Nekazaritza
eta Arrantzako sailburua da, **Pilar
Unzalu**, eta hauek dira kideak:
Arantza Leturiondo Ingurumeneko
sailburuordea (presidenteordea),
Juan Ignacio Escala Urdapilleta
Ingurumen Kalitateko zuzendaria
(kidea), **María Soledad Gutiérrez**
Ekonomia eta Ogasun Saileko
zuzendaria (kidea), **Jorge Juan
Letamendia** Industria, Berrikuntza
eta Kontsumo Saileko Energia
eta Meategietako zuzendaria
(kidea), **Agustín Delgado**
Iberdrolako Berrikuntza, Kalitate
eta Ingurumeneko zuzendaria
(kidea), **Izaskun Astondoa**
Konfebaskeko Ingurumen Batzordeko
lehendakaria (kidea), **José Antonio
Armolea** Administrazio eta Arlo
Juridikoaren Kudeaketako gerentea
(kontseilukidea ez den idazkaria)
eta **Fernando Barrenechea** lhobeko
zuzendari nagusia.

2010eko ORGANIGRAMA

ZUZENDARITZA NAGUSIA
Fernando Barrenechea
dgeneral@ihobe.net



**PERTSONEN ETA ZERBITZU
KORPORATIBOEN
ZUZENDARITZA**
Antonio Castejón
antonio.castejon@ihobe.net

**ESTRATEGIAREN ETA
KOMUNIKAZIOAREN
ZUZENDARITZA**
Alexander Boto
alexander.boto@ihobe.net

**INGURUMEN BABESAREN
ETA HOBETUNTZAREN
ZUZENDARITZA**
Jaione Lamborena
jaione.lamborena@ihobe.net

**IRAUNKORTASUNAREN
ZUZENDARITZA**
Ignacio Quintana
ignacio.quintana@ihobe.net

PERTSONAK Marian Barquin marian.barquin@ihobe.net

SISTEMAK ETA HOBETUNTZA Ana Rebate ana.rebate@ihobe.net

ADMINISTRAZIOA ETA ARLO JURIDIKOA José Antonio Armolea joseantonio.armolea@ihobe.net

KOMUNIKAZIOA ETA LAGUNTZA ESTRATEGIKOA Xabier González xabier.gonzalez@ihobe.net

IDAZKARITZA TEKNIKOAK Mari Mar Alonso mar.alonso@ihobe.net

INGURUMEN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA Iñaki Susaeta inaki.susaeta@ihobe.net

NATURA BALIABIDEAK Ana Alzola ana.alzola@ihobe.net

KLIMA ALDAKETA ETA BIODIBERTSITATEA José María Fernández josemaria.fernandez@ihobe.net

EKOIZPEN ETA KONTSUMO IRAUNKORRAK Ander Elgorriaga ander.elgorriaga@ihobe.net

GURE ERRONKA 2020

Hau da Ihobe INGURUMEN JARDUKETARAKO
SOZETATE PUBLIKOAK bere buruari jarritako erronka:
talde bezala baliorik gorena ematea

EcoEuskadi 2020

Euskal Autonomia Erkidegoa eraldatzeko
eredu berriari, eta pertsonen aldetik
ilusiorik handiena jartzea.



EGINKIZUNA

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari laguntzea Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-politika garatzen eta ingurumen-iraunkortasunaren kultura zabaltzen.

Horretarako:

- Ingurumenari buruzko ezagutzaren sorrera eta zabalkuntza sustatzen ditugu.
- Elkarlanean aritzen gara enprekin, administrazio publikoarekin eta herritarrekin.
- Ingurumena hobetzen laguntzen dugu eta hobekuntza horretan era aktiboan parte hartzen dugu.
- Gure ezagutza eta baliabideak partekatzen ditugu, bikaintasunean eta gizarte-erantzukizunean oinarrituta.



IKUSPEGIA

lhobe gauza izan behar da 2012an eragile guztien aurrean honela aurkezteko:

- Sailaren lankide eraginkor eta aholkulari onartu bezala, bildu duen eskarmentua irtenbideak eta zerbitzuak emateko baliatzen duena, EAEko ingurumen-helburuak erdiestearren.
- Ingurumenari buruzko ezagutzaren sustatzaile bezala, ezagutzaren sorkuntza eta zabalkuntza dinamizatzeko.

EGINKIZUNA,
IKUSPEGIA,
BALIOAK



BALIOAK

- Sinisgarritasuna eta konpromisoa.
- Kudeaketa eraginkorra eta talde-lana.
- Aldatzeko ilusioa barreiatzea.
- Gure ingurunetik eta gure ingurunerantz.

BIKAINTRASUN ETA BERRIKUNTZA, MUGIARAZTEN GAITU, MOTIBATZEN GAITU

lhoberen estrategia
bikaintasunera eta
sozietatea txertatuta
dagoen gizarteari balioa
ematera bideratuta
dago, intereseko taldeen
itxaropenak eta eskaerak
bere eginda.

lhoberen nahia gauzak
egiteko moldeagatik
eredua eta erreferentzia-
puntua izatea da, eta
horretan lan egiten du
egunero. Hala bada,
lhoberen politika
korporatiboa sozietate
publiko honek burutzen
dituen ekintza guztien
espiritu bihurtu da.



GURE POLITIKA KORPORATIBOA, GURE NORTASUNA

Burutzen ditugu gobernu
korporatiboko praktika aurreratuak,
Administrazio Kontseiluaren
eta kudeaketa-talde osoaren
funtzionamendu eta jardura
egokiak zaintzeko, Administrazio
Kontseiluaren Araudia eta Etika
Kodea nahiz Jokabide Kodea
erreferentziazat hartuta.

Betetzen ditugu ezartzen
dizkiguten edo borondatez onartzen
ditugun arau eta erreferentzia-
esparruetan zehaztutako baldintzak.

Lortzen ditugu guk garatutako
jardueren etengabeko
eraginkortasuna eta hobekuntza,
jardura iraunkorrak eginda, eta
gure baliabideak erantzukizunez eta
eraginkortasunez gobernatuta.

Engaiatu eta motibatzen ditugu
gure pertsonak, eta haien
gogobetetzea lortzen dugu,
gidaritzaren bidez eta pertsonen
garapenaren bidez, berdintasun-
irizpideetan eta errespetuan
oinarrituta.

Sustatzen ditugu berrikuntzaren
sorkuntza, inspirazioa eta
kudeaketa, etorkizunerako berme
eta gure lehiakortasunaren
hobekuntza bezala.

Balioa **ematen diegu** geure
bezeroei etengabean, konfiantza eta
elkarriketa iraunkorren bitartez.
Gure hornitzaileekin harreman
sendoa eraikitzen dugu, eta tratu-
berdintasuna nahiz konkurrentzia-
printzipioa bermatzen ditugu,
prozesu garden, objektibo eta
inpartzialen bidez.

Ehundu dugu elkarrenganako kon-
fiantzan eta partaideen arrakastan
oinarrituta dagoen itun-sare bat.

Interes-talde guztiei **jakitera**
ematen diegu gardentasunez beren
eskaerei erantzuteko egindako
jardueri buruzko informazio
garrantzitsua eta egiazkoa.

Lan egiten dugu iraunkortasunaren
alde, lhobeko pertsona guztiak
ingurumen- eta gizarte-hobekuntzan
eredu izanda eta esku hartuta, gure
jardueraz harago.





B BERRITZEN DUGU GURE INGURUNEARI ERNE EGONDA

2010eko erronketako bat berrikuntza Ihoberen eguneroko kudeaketan era sistematikoan sartzea izan da. Horretarako, berrikuntza kudeatzeko sistema bat definitu dugu, barnean zaintza teknologikoa duena Kudeaketa Planaren definizioaren input nagusi bezala, eta irizpide nahiz tresnak argi definitzen dituen, proiektu berritzaileak kudeatzeko eta enpresaren egunerokotasunean sormena erabiltzeko.

Berrikuntza kudeatzeko eta Teknologia zaintzeko Sistema ezarrita, eta geroago UNE 166002

eta 166006 Arauen arabera lortutako ziurtagiriaren bidez, Ihobe Euskadiko lehen sozietate publikoa izan da AENOR erakundearen Berrikuntzaren Kudeaketan eta Teknologiaren Zaintzan ziurtagiria eskuratzen, eta Estatuko lehen enpresa publikoen arteko bat izan da bi alderdi garrantzitsu horien egiaztapena lortzen, era horretan ondo islaturik berrikuntzaren alde dugun konpromisoa.

Ezaugarri horiek dituen sistema bat eraginkortasunez abian jartzeak erakundeei ahalbidetzen die baliabideen kudeaketa eraginkorra egitea, eta baita berrikuntza-helburuak planifikatzea eta kontrolatzea ere. Horrez gain, onespene osoa duten arau horiek ezartzean, osoko berrikuntzaren kudeaketa bermatzen

du, ingurunearen behaketa barne, eta errazten du erakundearen jarrera estrategikoa nahiz dituen berrikuntza-helburuak definitzea. Bi ziurtagiriak lortzean Ihobek finkatu duen lan-ildoak etengabeko hobekuntzaren politikaren barruan kokatu behar da, EFQMren irizpideen eta gobernu korporatibo egokiaren arabera burutzen baita, Eusko Jaur-laritzaren jarraibideak betez.

Labur esanda, sistema hau lagungarria da ingurunea eta ingurumenean egiten diren jarduketak nahiz sortzen diren alertak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko, eta, halaber, ahalbidetzen du berrikuntzarako estrategien bilaketa etengabearen aritzea, hori baita Ihoberen etorkizunaren giltzarrietako bat.

Ihoberentzat berritzea, hortaz, ideiak sortzea eta aurkitzea, eta, proiektuen bidez, ideiak hautatzea eta garatzea da, produktu edo zerbitzu berri bihurtzeko eta horiek merkaturatzeko.

Ihobe,
BERRIKUNTZAREN
KUDEAKETAN ETA
TEKNOLOGIAREN ZAINTZAN
ZIURTAGIRIA DUEN
EUSKADIKO LEHEN
SOZIJETATE
PUBLIKOA


Kudeaketaren
Kalitateari



BALIODUN PERTSONAK, PERTSONEN BALIOA

Pertsonek lhoberi bere eginkizuna betetzea ahalbidetzen dion elementu nagusia eratzen dute. Sozietate publikoaren giza kapitala osatzen duten 58 gizon eta emakumeek beren balio eta konpromiso osoak jartzen dituzte Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ingurumen-helburuak betetzeko ahaleginetan.



PERTSONAK

lhoberen web orrialdean eskuragarri dagoen Sozietatearen politika korporatiboan argi utzi dugu politika horren osagarriak pertsonek partaidetza, motibazioa eta gogobetetasuna direla, hain zuzen ere pertsonek gidaritzaren eta garapenaren bidez, eta berdintasun- nahiz errespetu-irizpideetan oinarrituta. lhoben uste dugu gidaritza konpainia honen balioak garatzea dela, zuzendaritza-taldeak bultzatuta, eraginkortasunez zuzendu, sustatu, ilusioa piztu eta berotasuna kutsatu beharko baitu helburuak erdiesteko bidean.

Pertsonek Ekintza Plana erakundearen gidarien bidez garatuko da, pertsonek kudeaketaren deszentralizazioa Planak erakunde honetan duen arrakastaren giltzetako bat dela. Pertsonek kudeaketarako estrategiak, politikak eta planak hobetzeko helburura begira, lhobe hiru funtsezko tresnaz baliatzen da, langileei buruzko informazioa biltzeko. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Gogobetetasunari buruzko urteroko galdeketa,
- «Topagune» elkarrizketa,
- Eta enpresako Zuzendaritzarekin egiten den elkarrizketa estrategikoa.



GOGOBETETZE PERTSONALARI BURUZKO GALDEKETA 2010

2010eko Gogobetetze pertsonalari buruzko Galdeketa % 86ko partaidetza lortu zen, eta hauek dira galdeketa hoberen baloratu diren alderdiak:

- Pertsona askok (% 83) erakundearen lan egitea gomendatzen dute, eta lhoben dagoen gogobetetze orokorraren maila handia erakusten dute (% 70).
- Prestakuntza (% 87) eta gaitzeko planak (% 94), % 90etik gorako langilerengana iristen direnak.
- Zuzendaritza-talde irekiaren gidaritza (% 69), entzuten baitu (% 79) eta koherentea baita lhoberen balioak bizitzeko orduan (% 67).



- Talde-lana, bai norbera hobetzeko orduan (% 80), bai ekarpenak hobetzeko orduan (% 89).
- Enpresa partaide izatea helburuak zehazteko orduan (% 76), eta eskuordetzea (% 80).
- Lanpostuan sorkuntza sustatzea (% 80) eta ideien originaltasuna baloratzea (% 76).
- Eraginkortasunez komunikatzea, Eginkizun, Ikuspegi eta Balioen ezagutza-maila handiak frogatzen duen bezala (% 85).



B BALIOAK ZABALTZEN DITUGU

Balioen kultura sendotzeko xedez, hainbat barne-ekintza burutu dira, hala nola, Urteberri eta Berriplan jardunaldiak, edo berariazko komunikazio-kanpainak —«Gure basoa» edo «Gure balioak lantzen», besteak beste—, alderdi horiek sendotzeko eta finkatzeko lagungarri direnak.

Ihoberen barne-komunikazioaren berrikuntza-mailak interesa piztu du beste erakunde batzuetan. Ihoberen barne-komunikazioaren eredua finalista geratu zen 2008ko Administrazio Publikoaren Jardunbide Egokiei buruzko II. Biltzarrean, eta hainbat erakunderi aurkeztu zaie, besteak beste EEE, Spri, Neiker eta Itsasmendikoi erakundeei.

C GURE KULTURA PARTEKATZEN DUGU

2010ean, pertsonen kudeaketan erreferentziatzat hartzen diren beste erakunde batzuekin esperientziak trukatzeari sustatu da. Zehazki, bilerak egin ditugu bikaintasunaren aldeko erakunde publikoen Q-Epea sarearekin eta Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko sozietate publikoen taldearekin (URA Uraren Euskal Agentzia, Neiker, Itsasmendikoi, Erika, Kalitatea eta Azti).

Horrez gain, hainbat prestakuntza-ekintza berritzaile burutu dira, hala nola, Enpresak bisitatzeko Programa (2010), ingurumen-babesaren ikuspegitik nahiz pertsonen kudeaketaren ikuspegitik

eredugarriak diren enpresen esperientzia ezagutzeko, Programa horren barruan, Ihobeko pertsona taldeak Vidrala eta Vicinay Cadenas enpresak bisitatu ditu.

Pertsonak
funtsezko elementu
dira, Ihobek bere
eginkizuna
bete ahal izateko



2010EAN URRATUTAKO BIDEA

Hasiera-hasieratik,
lhobek apustua egin
du pertsonak beren
jardueran konpromisoa
hartzearen eta
parte hartzearen
alde. Berrikuntzaren
eta sorkuntzaren
sustapenari esker,
sozietate publiko
hau osatzen duen
taldeak eraginkortasun
oso eta kalitaterik
handienaz erantzuten
die intereseko taldeen
behar eta itxaropenei,
jarraian aurkeztuko
ditugun ingurumen-
alorretan.





Ignacio Quintana
IRAUNKORTASUNEKO
ZUZENDARIA

Alexander Boto
ESTRATEGIA ETA KOMUNIKAZIOKO
ZUZENDARIA

Jaione Lamborena
INGURUMEN BABES ETA
HOBETUNTZAKO ZUZENDARIA

Antonio Castejón
PERTSONEN ETA ZERBITZU
KORPORATIBOETAKO ZUZENDARIA

**Fernando
Barrenechea**
ZUZENDARI NAGUSIA

ANA
REBATE

Sistemak
eta Hobekuntza
Departamentuko
gerentea

«Zenbait tresnak,
hala nola
lhobeko
Informazio
Korporatiboko
Sistemak,
erraztasuna
ematen digute
gure eguneroko
lanean
eraginkorrago
izateko.»



IÑAKI
SUSAETA

Ingurumen Kudeaketa Administrazioaren
Departamentuko gerentea

«Hau da gure
konpromisoa:
ezagutza berriak
aurkitzea
eta baliatzea,
Euskadi Espainian eta
Europar ingurumenaren
esparruan erreferentzia-
puntu bihurtzeko
eginkizunean
eraginkorrago izan
gaitezen.»

350 adituk

produktuen eta
zerbitzuen diseinuari buruz
eztabaidatu dute Ihoberen
Ekodiseinu eta Etxegintza
Iraunkorraren
IV. Biltzarrean



IHOBE EUROPAKO BATZORDEAREKIN LANKIDETZAN ARITU DA EUROPAKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA KONTROLATZEKO SISTEMA BAT DEFINITZEKO

Ihobek, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdean Europako erreferentzia-puntu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte arlo horretan izandako esperientziei buruzko txosten bat burutu eta Europako Batzordeari igorri dio.

Ekarpen horien bidez, Ihobek Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen monitoretza estandarizatua egiteko sistema berri bat definitzen lagundu nahi du. Europako herrialde guztietan baliagarria izango den sistema da eta Europako Batzordea lanean ari da arlo horretan.



350 ADITUK EZTABAIDATU ZUTEN PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN DISEINUARI BURUZ, IHOBEREN EKODISEINU ETA ETXEGINTZA IRAUNKORRAREN IV. BILTZARREAN

Bilboko Euskalduna Jauregian burutu zen «Environmental Product & Building Innovation 2010» izeneko IV. biltzarra. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Ihobe bere sozietate publikoarekin batera antolatutako ekitaldi horretan, ia 350 enpresa eta erakundetako aditu elkartu ziren, produktu, ekodiseinu eta etxegintza iraunkorraren ingurumen-berrikuntzaren alorrean Europa osoaren nahiz eskualdeen mailan dauden azken joerak bertatik ezagutzeko.



Biltzarrari hasiera emateko ekitaldian, Pilar Unzalu Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuordeak baieztatu zuen «azken urteetan Euskadiko enpresek Administrazioarekin lankidetzan burututako produktuen inguruko politiken ezarpenak eragin zuzena eta guztiz positiboa izan du ingurumenean», izan ere, milioi bat tona CO₂ murriztea lortu da.

Gaur egun, Euskadin, 60 enpresa baliatzen ari dira dagoeneko ekoberrikuntza-irizpide batzuk, hala nola UNE 150301 ekodiseinuaren ziurtagiria (etorkizuneko ISO 14006), produktuen ekoetiketak, edo produktuei buruzko ingurumen-adierazpena (EPD), Europako Batzordearen aitortzen ofizialak edo Ihobek Baliozkotutako jardunbide hobeak barne.



Programa Ecoeficiencia en la Empresa Vasca Ekoeraginkortasun Euskal Enpresan Programa

2010-2014

EUSKADIKO MILA ENPRESA IZANGO DIRA EUSKO JAURLARITZAREN EKOERAGINKORTASUN PROGRAMAREN ONURADUN

Teknologia eraginkorrak erabiltzea, Europan garatzeko bidean dauden merkatu berdeei atea zabaltzea eta kostuak nahiz ingurumen-eraginak minimizatzea izango dira Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programan parte hartuko duten Euskadiko mila bat enpresak bereganatuko dituzten abantailak batzuk. Ingurumen Sailak sustatu duen ekimen horrek 15 milioi euroko zuzkidura du, eta, haren bidez, 100.000 tona CO₂ murriztu ez ezik, 100.000 tona hondakini balioa eman eta 200.000 tona lehengairen kontsumoa murriztea ere espero da.

«Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa» izenekoaren helburu nagusia Euskadiko enpresek ingurumenari lotuta egiten dituzten jarduketan kopurua handitzea da, Europan garatzeko bidean dauden merkatuetan etorkizunean lehiakortasun abantailatsua izan dezaten.

Programa diseinatzeko, euskal industria-ehunak lehiakortasunaren esparruan dituen eskaerak aztertu dira. Programaren edukia zein Programari atxikitzeko formulak enpresa-elkarte, eskualde-garapenerako agentzia eta Euskadiko hainbat tamainatako eta jarduera-sektoretako enpresa ugariekin batera adostu dira.

«Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa» aitzindaria da ezartzeko eskemari bagagozkio, izan ere, enpresa parte-hartzaileen eta Administrazio Publikoaren arteko ardura partekatuaz diseinatu da, eta Programa garatu bitartean, bi alderdiek hainbat helburu lortzeko konpromisoa hartu dute.

Zehazki, Ingurumen Sailak zerbitzuak, metodologiak, prestakuntza eta laguntza ekonomikoak jarriko ditu erakunde parte-hartzaileen eskura, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik eraginkorrak diren teknologiak ezartzeko, ingurumenari buruzko legeria betetzeko eta ingurumenaren alorreko alderdietan trebatzeko, era horretan eskainiko baitio enpresa-ehunari Europan azaleratzen ari diren merkatu berdeetan lehiakorrak izateko aukera.

Helburua:
1.000
enpresa
ekoeraginkortasun
programan
2014an



UDALSAREA 21, TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN SAREA, 189 EUSKAL UDALERRIK OSATUA

189 udalerrik berritu zuten Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sareari atxikita jarraitzeko konpromisoa. Udalerri horiez gain, erakunde hauek dira Udalsareaosatzen dutenak: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Uraren Euskal Agentzia (URA) eta Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Ihobek, halaber, Udalsarearen Idazkaritza Teknikoaren ardura du. Erakundeen arteko lankidetzaz hori sarea mugiarazten duen eta ahalguztiak norabide bererantz bideratzen dituen funtsezko alderdia da, euskal udalerrietan eraginkorra den garapen iraunkorra erdiesteko.

Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarea 2002ko abenduaren 20an eratu zen, hasiera hartan 16 udalerrik osaturik. Tokiko Agenda 21en diseinu-fasea amaitu eta gero, udalerri horiek berretsi zuten tokiko iraunkortasunaren

alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa, udalerri bakoitzak bere Tokiko Ekintza Planean jasotako ekintzak betetz.

ECOEUSKADI 2020, GARAPEN IRAUNKORRAREN ESTRATEGIA PRESTATZEKO LANETAN PARTE HARTZEKO PROZESUA ABIAN DA

Eusko Jaurlaritzak abian jarri du prozesu bat EcoEuskadi 2020, Euskadiko Garapen Iraunkorraren Estrategia prestatzeko, Euskadi iraunkortasunaren esparruan Europako eskualde aurreratuen artean sartzeko helburuaz. Prozesua burutu ahal izateko, Ihobe arduratuko da partaidetza publikoaren prozesuak izango duen Idazkaritza Teknikoaz, bera izango delarik euskal herritarren ekarpenak bilduko dituen. Helburua hainbat alderdi buruzko hausnarketa egitea da –goraldi ekonomikoa, gizarte-zuzentasun eta –kohesioa, eta ingurumena babestea–



2020. urtea epemuga jarrita. Eraitza lagungarria izango da Euskadiko politika publikoak iraunkortasunean oinarrituta bideratzeko.

Patxi Lopez lehendakariaren hitzetan, «EcoEuskadi 2020 Ekonomia da, Ekologia da, gizarte osoaren ahotsaren Oihartzuna da. Guztion proiektua da, guztion onerako».

EcoEuskadi 2020 Estrategia guztion artean antolatzean erdietsi nahi den helburua ekonomiaren hazkundea bultzatu eta aberastasuna sortzea da, ingurumenak eta pertsonen ahalik eta kostu txikiena izanda; halaber, gure gauzei buruz ditugun ikusmoldeak aldatzea, alorreko politiken gizarte eta ingurumenaren alderdiak nabarmenduta eta talentuak gehitzea sustatzea.

JOSÉ
ANTONIO
ARMOLEA

Administrazio eta Arlo
Juridikoko gerentea

«Ihoberen
kudeaketa
Gobernu
Arduratsu
Onaren Gidaren
irizpideetan
oinarrituta
burutzen da,
eta horrek
berekin dakar
gizartearekin eta
ingurumenarekin
engaiatzea.»



MARI MAR
ALONSO

Idazkaritza Teknikoen
Arloko gerentea

«Euskadiko
eragile nagusiekin
lan egiten dugu
ingurumenaren
esparruko politiken
diseinua,
zabalkuntza,
ebaluazio eta
segimendua, eta
sozializazioa
koordinatzeko.»

16 erakunde

Euskadiko
16 erakunde
egiaztatuta daude
lurzoru kutsatuen
ikuskaritzan

EUROPAKO BATZORDEKO INGURUMEN ZUZENDARITZAREN TXOSTEN BATEAN, EUSKADIN KUTSATUTAKO LURZORUAK BERRESKURATZEKO EGITEN ARI DEN LANA NABARMENDU DA

Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, «Ingurumen-politikaren onura ekonomikoak» izenburuko txostenean, nabarmendu ditu Europako fondoek Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurzoru kutsatuak berreskuratzeko orduan izandako eginkizun garrantzitsua eta horren ondoriozko eragina ekonomian, eraiki diren ingurumen-azpiegiturek sortutako enpleguari esker.

Txosten horretan, Europan garatu diren ingurumen-jarduketa batzuk deskribatu dira, horien artean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) lurzoru kutsatuak tratatzeko esperientzia.

33 kokaleku –560.000 m³ lur kutsatu– berreskuratzeko proiektuak eragin nabarmena izan zuen ekonomian, isolamendu-zona egiteko 200 langile inguru enplegatu baitziren, eta 20 lanpostu zuzenez gain, 100 zeharkako lanpostu sortu baitziren tratamendu kimikoa egiteko plantan. Enplegu horiek aldi baterako sortu ziren, baina onura ekonomiko handiagoak aurreikusita daude epe luzerako, eremua biziberritzeko lanetan. Proiektuak 45,6 milioi euroko kostua izan zuen, eta kopuru horretatik 35,5 milioi euro Europako Batasunak finantzatu zituen.

EUSKADI LURZORU KUTSATUETAN EGIAZTATUTAKO ERAKUNDEEN KOPURURIK HANDIENA DUEN AUTONOMIA ERKIDEGO DA

Euskal Autonomia Erkidegoan 16 ikuskaritza-erakunde daude egiaztatutik, Espainia osoan dauden 46 erakundeetatik. Lurzoru kutsatuen inguruko politika eta arlo horretan Eusko Jaur-

lartzak eman duen legeriak nabarmen sustatu dute lurzoru kutsatuei buruzko ikerkuntzan eta horiek berreskuratzeko lanetan espezializatutako erakundeen sorrera.

AZKOITIKO OINARTXO POLIGONOA INAUGURATU DA, INDUSTRIA- ZABORTEGI BATEN 9.000 METRO KOADRO BERRESKURATU ETA GERO

Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Juan Ignacio Goicolea Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak, Asier Aranbarri Azkoitiko alkateak, José Manuel Iturralde SPRILUR, S.A. sozietateko zuzendari nagusiak, eta Fernando Barrenechea Ihobeko Zuzendari nagusiak, Urola Erdia eskualdeko alkate eta enpresariekin batera, parte hartu zuten industri zabortege batean 9.000 metro koadro berreskuratu eta gero eraiki den Azkoitiko Oinartxo Poligonoaren inaugurazioan.



XABIER
GONZALEZ

Komunikazioaren eta
Laguntza Estrategikoaren
Arloko gerentea

«Gizartera irekita
gaude, eta arrazoi
horrengatik baloratzen
dugu hainbeste
gure bezeroekiko
komunikazio argia
eta eraginkorra.»

GUSTUKO
DUT TALDE
HONEKIN
LAN
EGITEA

MARIAN
BARQUIN

Pertsonen Arloko
gerentea

«Ihobeko pertsonen
taldea motibaturik,
konprometiturik eta
gaiturik dago, eta
arrakasta lortzera
bideratuta dago.»



5.000 ikaslek

parte hartu zuten
Euskadiko
Biodibertsitate
Zentroko
Eskola Programan

2009an, EUSKADIN BEROTEGI-EFEKTUA SORTZEN DUTEN GASEN IGORPENAK % 10ean MURRIZTU ZIREN

Euskal Autonomia Erkidegoan, berotegi-efektuko gasen igorpenak % 10ean murriztu ziren 2009an, aurreko urtearekin alderatuta. Hala, 22,6 milioi tona CO₂ isuri ziren balio absolutuetan, 2008. urtean inbentariatu ziren 25,2 milioien aldean. Murrizketa hori jarduera ekonomikoan izandako jaitsierak era nabarmenean baldintzatuta egon da.

Gaur egungo egoera ekonomikoa gorabehera, CO₂ren igorpenek Barne Produktu Gordinak baino jaitsiera handiagoa izateak (% 10 eta % 4, hurrenez hurren) adierazten digu

2002an hasitako joera, hau da, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenaren eta berotegi-efektuko gasen igorpenen arteko banaketa, mantentzen dela. Alegia, igorpena gutxiago egiten ditugu ondasun eta zerbitzuen ekoizpen-unitate bakoitzeko.

EUSKADIKO BIODIBERTSITATE ZENTROAK BERE ESKOLA PROGRAMA AURKEZTU DU

Ingurumen Hezkuntza eta Sentsibilizaziorako Eskola Programan urteko 5.000 ikaslek parte hartzen dute, eta programa garrantzitsuenetako bat da Euskadiko Biodibertsitate Zentroak eskaintzen dituenen artean. Ikaskuntza-jardueretan oinarrituta dago, ingurunearen

behaketaren eta azterketaren bidez eta ingurunea gozatuz nahiz hobetuz ikasteko.

Hauek dira programaren helburu nagusien arteko batzuk: biodibertsitatearen aurrean sentikortzea eta gai horri buruzko ezagutza bereganatzea, gizakiek beren ingurunean duen eragina ulertzea, ingurumena eta garapen iraunkorra zein garrantzitsuak diren eta horiek kudeatzeko arazoak handiak direla onartzea, biodibertsitateak ekartzen dizkigun onurak eta biodibertsitatea zaintzea gizadiarentzat zein garrantzitsua den ezagutzea. Hezkuntza-ziklo bakoitzera begira eskainitako jarduera guztien edukiak estu lotuta daude eskola-curriculumaren helburuekin.

2010ean, 25.000 lagunek bisitatu zuten Euskadiko Biodibertsitate Zentroa.



ANDER
ELGORRIAGA

Ekoiarpen eta Kontsumo
Irakunkorren Arloko
gerentea



«Gure erroika merkatura
ingurumen-erroikak eta -aukerak
transmititzea da, enpresei
lehiakortasuna hobetzea
ahalbidetzen dieten zerbitzuak
eskainita.»

30

jardunbide egoki

eko-berrikuntzan
Euskadin



«EUSKADI, EKO-BERRIKUNTZAREN GUNEA» DOKUMENTUAREN ARABERA, EKIMEN BERRITZAILEAK EGITEKO ESKUALDE EGOKIA DA EAE

EAEko ingurumen-berrikuntzaren arloko eragileak eta gaitasunak identifikatu dituzte Ihobek, EEEK, Innobasquek eta SPRIk «Euskadi, eko-berrikuntzaren gunea» dokumentuan. EAEko ekoberrikuntzako zazpi EKO-komunitate aztertu dira lanean, eragile teknologikoen jardunbide egokiak azaltzen dituzten 30 adibideren bidez.

Agiriaren helburu nagusia da ekoberrikuntzan eta ingurumen-ezagutzan dauden nazioarteko ereduak Euskadik arlo horretan dituen aktiboak ezagutzera ematea, eta, era horretan, nazioartean garrantzitsuak diren eragileen eta euskal

eskaintza teknologikoaren artean I+G+b esparruko proiektu berriak sortzen laguntzea, Euskadi ekoberrikuntzaren eta ingurumen-ezagutzaren alorretako nazioarteko proiektu interesgarrienek ematen dituzten emaitza zientifikoen zabalkuntza-gune bihurtzeko.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO 50 BAT ORDEZKARIK AZTERTU DITUZTE EROSKETA BERDEA EGITEKO ESTRATEGIAK, IHOBE ETA HAEEREKIN BATERA

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako 50etik gorako ordezkari elkartu ziren Bilbon, Euskadin eta Espainiako gainerako autonomietan Erosketa Publiko Berdearen inguruko ekimen garrantzitsuenak ezagutzeko.



Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAE) antolatutako jardunaldi teknikoaren helburua Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak arlo honetan garatutako estrategia eta tresnak aurkeztea izan da, ingurumenaren ikuspegitik erosketak eta kontratazioak egiteko politika iraunkorragoa zabaltzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan.

Fernando Barrenechea Ihobeko zuzendari nagusiaren hitzetan, «euskal administrazio publikoak, Europako administrazioek bezala, ingurumen-irizpideak erabili beharko genituzke erosketak eta kontratazioak egitean, ingurumena gehien errespetatzen duten produktuen eta zerbitzuen eskaintza handitu eta guztion eskura egon dadin, enpresak nahiz herritarrek izan».



ANA
ALZOLA

Natura Baliabideen Arloko
gerentea

«Gogoko dugu
jakitea gure lanak
eragin zuzena duela
ingurumenaren
hobekuntzan.»



JOSE
MARÍA
FERNÁNDEZ

Klima Aldaketa eta
Biodibertsitatearen Arloko
gerentea

«Gobernuak
klima-aldaketaren
aurkako borrokan
eta Euskadiko
biodibertsitatearen
zaintzan erdietsi nahi
dituen helburuak
zabaltzea errazten
duten ekintzak eta
ekimenak abian
jartzeko beharrezkoa
den ezagutza sortu eta
dinamizatzen dugu.»

Ingurumena
babesteko Europako
Agentzien

14.

batzarra

burutu zen Bilbon



IHOBE, ERAIKUNE ERAIKUNTZAREN EUSKAL KLUSTERRAREN KIDE SORTZAILEA

Ihobe sozietate publikoa Eraikune Euskadiko Eraikuntzaren Klusterraren erakunde sortzaileetako bat izan da. Ihobek kide sortzaile bezala akta sinatzeak berekin du Eraikune babesteko eta erakundeak zehaztutako helburuak sustatu eta errazten dituen eragile moduan erabiltzeko nahia.

Ihobek, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko sozietate publikoak, duela hainbat urte lanean dihardu eraikuntza-sektorearekin, sektore hori funtsezkotzat jotzen baitu Euskadiko iraunkortasuna erdietsi ahal izateko. Europako Batzordearen azterlanek baieztatu dute eraikinen eta azpiegituren eraikuntzak, erabilerak eta eraispenak, bizitza-zikloaren ikuspegitik begiratuta, CO₂ igorpenen % 40, lehengaien kontsumoaren % 60, uraren kontsumoaren % 50 eta hondakin guztien % 35 sortzen dituztela.

Eraikune eraikuntza-sektorearen lehiakortasuna Euskadin hobetzeko asmoz sortu da, eta, hala, eratu egin da «sektorean esku hartzen duten eragile guztien topagunea den erakundea, jarduteko prozedura berriak eta klusterra nahiz klusterreko kide diren enpresetako bakoitza hobetzeko elementu berritzaileak ezartzeko ekimenen garapena erraztearren».

EUROPAKO INGURUMEN-AGENTZIEK INGURUMENARI BURUZKO LEGERIA EZARTZEKO ORDUAN ERAGINKORTA- SUNA HOBETZEKO MODUA AZTERTU ZUTEN BILBON

Ingurumena Babesteko Agentzien Europako Sareak 14. bileran egin zuen martxoan Bilbon, Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurunekeo Ministerioak (MARM) gonbidatuta eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak babestuta.

Europako Ingurumen Agentziako zuzendaria den Jacqueline McGlade buruzagi duen sarea topaketarako gune informala da, eta bertan koordinatzen dira Europako ingurumen-agenta guztiak, ekintza publikoaren eraginkortasuna areagotzeko gai hauetan, besteak beste: ingurumen-arriskuei aurrea hartzea, klimaren aldaketara egokitzea, ingurumenari buruzko legeria hobetzea eta herritarrak sentikortzea.

Bilboko bileran, Sareak hainbat estrategia definitu zituen ingurumenari buruzko legeria eraginkorragoa izan dadin, herritarregana iristen den ingurumenari buruzko komunikazioaren errendimendua hobe dadin, eta, hartara, erabakitze prozesuetan herritarren partaidetza handiagoa izan dadin.




EKITALDIAK ETA JARDUNALDI TEKNIKOAK

Ekitaldi korporatiboak, jardunaldi teknikoak, ingurumenari buruzko foroak, adituak, lantegiak... Horiek guztiak gure bezeroekin –enpresak, udalerrak eta administrazio publikoak– eta gizarteko gainerako taldeekin komunikatzeko eta harremanetan sartzeko tresna ezin hobeak dira. Horiei esker, ingurumenari buruzko ezagutza, metodologiak, etorkizuneko erronkak ezagutzera eman eta parteka ditzakegu, elkarrekin Euskadi iraunkorrago pixkanaka eraikitzeko.



1. Ingurumen-bikaintasuna Euskadiko enpresetan. Onurak ingurumena kudeatzeko Europako sisteman (EMAS) erregistratutako erakundeentzat. (Urtarrila)
2. Enpresarentzako Europako Ingurumen Sariak 2009-2010. Euskadiko Atala. (Urtarrila)
3. Ihoberen Hornitzaileen X. Foroa. (Otsaila)
4. HEPAk Sareko Europako ingurumen-agentzietako zuzendarien bilera. (Martxoa)
5. Ekodiseinu eta Eraikuntza Iraunkorraren IV. Nazioarteko Biltzarra. (Apirila)
6. Jardunaldi bat, HAAEekin lankidetzan. (Ekaina)
 - Ingurumena administrazioan ezartzeko lehen urratsak. Ekoscan Ingurumena Hobetzeko Sistema.
 - Erosketa Publiko Berdea. Ingurumen-irizpideak Euskal Administrazioaren erosketa eta kontratazioetan sartzeari.
7. EHU-UPVko Ekodiseinu Ikasgela 2010-2011 ikastaroari hasiera ematea Bilbon.
8. Ficoban (Irun), Bioterra 2010 Azokan parte hartzea. (Ekaina)
9. Ingurumen Foroa, III. Ingurumen Esparru Programa. (Urria)
10. Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programaren aurkezpena. (Urria)
11. XIV. Kalitatearen Astea. (Azaroa)
 - a. Ekodiseinuko ErP Direktibaren eraginak euskal enpresetan.
 - b. Klima Aldaketaren arloko ziurtagiriak.
12. Tokiko Agenda 21en 8. Jardunaldia. Iraunkortasunerako hiri-ereduak. (Abendua)
13. Udalsarea 21eko Europako Sariak. (Abendua)



2010eko ARGITALPENAK

Ihobe erreferentzia-puntua da ingurumenari buruzko ezagutzaren esparruan, bai Estatuan, bai atzerrian, urtero plazaratzen dituen argitalpen teknikoan maila teknikoari eta horietan aztertzen diren gaiak esker. Web orrialdeko argitalpen-sailean dokumentu tekniko garrantzitsuak eskaintzen dira, ingurumenari buruzko jakintza-esparru zabala hartzen dutenak. Dokumentu horietako asko milaka aldiz behera kargatzen dira urtero. Horrek adierazten du zer-nolako munta eta garrantzia dituen zerbitzu honek Ihoberen bezeroentzat.

www.ihobe.net
300
ARGITALPEN
BAINO GEHIAGO
DOAN



INGURUMENA

- Euskadiko 2009ko Ingurumen Profila.
- 2009ko Urteko Txostena. Beste urte bat, ingurumenaren aldeko konpromisoa hartuta.
- 2010 Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua. Euskadiko Administrazio Publikotik bere eza-penerako eredu eta adibideak (jardunbide egokien fitxak eta hainbat atalen eguneratzea).
- 2010eko Ingurumen Eredugarritasuna EAEko Administrazio Publikoan.
- Euskadi, Ekoberrikuntzaren gune.
- Euskadiko Biodibertsitate Zentroa-Aurkezpen korporatiboa.



ENPRESA

- ETEak martxan. 210 ingurumen-jardunbide egoki.
- Ekoeraginkortasuna euskal enpresan 2010-2014 Programa.
- Enpresentzako Europako Ingurumen Sariak. Euskadiko Atala 2009-2010.

UDALERRIA

- Udalsarea 21 Lan-koadernoak: 10. zk. Ingurumen-hezkuntza iraunkortasunerako: Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 koordinatzea.
- EAEko Tokiko Iraunkortasunari buruzko 2009ko Txostena.
- Parte hartu 21: EAEko herritarrek Tokiko Agenda 21ean parte hartzeko gakoak.
- EAEko Tokiko Agenda 21eko 15 jardunbiderik egokienak. Udalsarea 21eko Sariak - 2010.



PRODUKTU ETA KONTSUMO IRAUNKORRAK

- Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Elektrikoa.
- Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Elektronikoa I eta II.
- Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Makina-erreminta.
- Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Hiriko altzariak.
- Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Altzariak.
- Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Ehungintza.
- Ekodiseinuari buruzko sektoreetako gidak: Eraikuntza-materiala.
- Eraikuntza Iraunkorrerako Gidak: Eraikin industrialak.
- Eraikuntza Iraunkorrerako Gidak: Administrazioaren edo bulego eraikinak.
- Eraikuntza Iraunkorrerako Gidak: Merkataritza arloko eraikinak.
- Produktua ingurumenaren aldetik hobetzea. Ekodiseinu Ikasgela 2009-2010.
- Ekodiseinuaren gakoak. Industria sektoreen erronkak eta aukerak.
- Eraikuntza Iraunkorrerako Gidak. Erronkak eta aukerak.
- Green Building Rating System: ¿Cómo evaluar la sostenibilidad de los edificios?
- Karbono arrastoa eta bizi zikloaren azterketa. Produktu jakin batek ingurumenean duen eragina neurtzeko bi modu.
- EuP/ ErP Direktibari buruz jakin behar dena.



KLIMA-ALDAKETA ETA HONDAKINAK

- 2009ko Berotegi Efektuko Gasen isurpenak Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Mapa de conocimiento de Cambio Climático de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Hondakinen 2008ko Inbentarioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Ez-Arriskutsuen 2005eko, 2006ko eta 2007ko Inbentarioa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen 2005eko, 2006ko eta 2007ko Inbentarioa.



IHOBE 2010 ZENBAKIETAN

Ihoberen jardueraren ondorio diren emaitza nagusiak laburbilduta ekarri ditugu orrialde hauetara.

59 ENPRESA
LANEAN
EKODISEI-
NUAN



PERTSONAK

- 58 pertsonak osatzen dugu Ihobe, 29 emakume eta 29 gizonak.
- Zuzendaritzako kideak: emakumeak % 36 dira, eta gizonak % 64.
- Batez besteko adina: 42 urte.
- Lanaldi murriztua duten langileak: % 25.

2010eko Gogobetetze Pertsonalari buruzko Galdeketa hobereen baloratu diren alderdiak (% 90 pozik):

- Komunikazio zuzena, bai baliagarria izan delako, bai nahikoa bide egon direlako.
- Pertsonak ekiteko prest daude, eta erakundeari ekarpenak egiten dizkiote. «Ihoberen arrakasta neure baitan ere badago».
- Zuzeneko arduradunek eskaintzen duten arreta.
- Ihoberen barne-zerbitzuen arreta (administratiboa, pertsonak, informazio-sistemak).
- Lana eta bizitza pertsonala bateratzea.



EMAITZAK BEZEROEN ARTEAN

ENPRESAK

- 59 enpresa lanean ari dira ekodiseinuan (10 egiaztatu gehiago, EAEn dauden 53en artean).
- 236 enpresa Ekoscanen ziurtatuta.
- 476 enpresak parte hartu dute ingurumen-prestakuntzaren inguruko lantegietan.
- Laguntza teknikoa Ingurumen Baimen Integratuetan, 262 enpresak dute baldintzapeko baimena.
- 3.164 kontsultari erantzuna eman die Ihobe Line ingurumenari buruzko doaneko telefono-zerbitzuak.
- Lurzoruaren kalitatea adierazteko espedienteen esparruan, 549 agiri balioetsi dira, emaitza hauekin: 312 txosten eman dira, eta babesa eskaini da 68 ebazpen eta 37 hondeaketa-baimen prestatzeko.

UDALERRIAK

- 189 udalerri atxikita daude Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sare Udalsarea 21 Sareari.
- 100 udalerri ebaluatzen ari dira bertako tokiko ekintza-planak.
- Iraunkortasun/Ingurumenaren arloko 98 teknikari euskal udalerrietan.

OLEAZ, EAEko Olio Erabiliak Analizatzeko Zentro Ofiziala

- 36.516 analisi-zehaztapen, 10.505 tona kontrolatutako olio erabiliri buruz.

GOI-MAILAKO
TITULUDUNAK,

% 79

ENPRESEN
ETA UDALERRIEN %
100ek
GOMENDATUKO
LUKE **Ihobe**



ZERBITZUEN ERAGINA

ENPRESAK

- Enpresak pozik daude, orokorrean, Ihobek eskaintzen dituen zerbitzuekin (10 puntu gehienez): 7,6.
- Enpresen % 90ek Ihoberekin orokorrean oso pozik dagoela nabarmendu du, 10 puntutatik 7 baino gehiago emanda.
- Enpresen % 80k Ihoberen zerbitzuen baliagarritasunari 10 puntutatik 7 baino gehiago eman dio.
- Enpresen % 79k uste du ingurumenari buruzko ezagutza handitu duela, Ihoberekin burutzen duen jardueraren ondorioz.
- Enpresen % 84k Ihoberekin lanean jarraitzeko interes handia du.
- Enpresen % 100ek gomendatuko luke Ihobe.

UDALERRIAK

- Udallerriak pozik daude, orokorrean, Ihobek eskaintzen dituen zerbitzuekin (10 puntu gehienez): 7,7.

- Udalerrien % 90ek Ihoberekin orokorrean oso pozik dagoela nabarmendu du, 10 puntutatik 7 baino gehiago emanda.
- Udalerrien % 95ek Ihoberen zerbitzuen baliagarritasunari 10 puntutatik 7 baino gehiago eman dio.
- Udalerrien % 100ek uste du ingurumenari buruzko ezagutza handitu duela, Ihoberekin burutzen duen jardueraren ondorioz.
- Udalerrien % 100ek gomendatuko luke Ihobe.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

- 27 euskal erakunderen 136 baldintza-agiri, produktuen 21 kategoria desberdini dagozkiezenak, ingurumen-irizpideez osatuta.
- 75 erakundetako 203 pertsona Euskal Administrazioaren Erosketa Publiko Berdean trebatuta, 10etik batez beste 7,6 puntuko balorazioaz.
- 12 sektoretako 163 hornitzailek parte hartu dute Erosketa Publiko Berdeari buruzko foroetan.

BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA

2010ean garatutako bederatzai proiektu berritzaile Ihoberen jarduera berri edo zerbitzu bihurtu ziren:

- Produktuei ingurumen-onespena ematea eta etiketa ekologikoak sustatu dira; horren ondorioz, ezagutza transferitzeko modulu bat eta produktuak ingurumenaren ikuspegitik onartzeari buruzko web euskarri bat sortu dira.
- Ingurumenari buruzko txosten estrategikoak prestatu dira, eta, horren ondorioz, erabakiak hartzeko txosten estandarizatuak sortu dira.

BAI
berrikuntzari

635.542
bisita
www.ihobe.net



Ihobe INTERNETEN

www.ihobe.net

- 635.542 bisita eta 18.363 erabiltzaile izen emanda webean (EAEko 8.805 eta EAetik kanpoko 9.558).
- Enpresen % 80k 10 puntutatik 7 puntu baino gehiagoz baloratu du Ihoberen web orrialdea.

www.udalsarea21.net

- 166.449 bisita.
- Udalerrien % 75ek 10 puntutatik 7 puntu baino gehiagoz baloratu du Udalsarea 21en web orrialdea.

www.stopco2euskadi.net: 133.808 bisita.

www.torremadariaga.net: 124.939 bisita.

www.productosostenible.net: 46.959 bisita.

Profilak ireki ditugu
Facebook (500 jarraitzaile),
Twitter (150 jarraitzaile), LinkedIn,
Flickr, YouTube eta Slideshare
gizarte-sareetan.



37
ARGITALPEN
PLAZARATUTA ETA
62.291
BEHERA KARGATUTA

INGURUMENARI BURUZKO EZAGUTZAREN ZABALKUNTZA

IHOBEK, 2010. URTEAN, ESTATUKO ETA NAZIOARTEKO PROIEKTU HAUETAN PARTE HARTU DU

1. **Ecolnnovera.** Europako Batzordearen FP7ko Eranet Proiektua, Ekoberrikuntzaren arloko I+G+b programak koordinatzeko.
2. **Circle 2.** Europako Batzordearen FP7ko Eranet Proiektua, klima-aldaketara egokitzearen arloko I+G+b programak koordinatzeko.
3. **Ircow.** Europako Batzordearen FP7ko Proiektua, eraikuntza eta eraispeneko hondakinei balioa emateko bide berriak garatzera bideratuta.
4. **Hombre.** Europako Batzordearen FP7ko Proiektua, lurzoru kutsatuak hirietan biziberritzeari balioa emateko bide berriak garatzera bideratuta.
5. **Spread.** Europako Batzordearen FP7ko Proiektua, bizi-estilo eta kontsumo iraunkorrei balioa emateko bide berriak garatzera bideratuta.
6. **Life:** Euskadiko estuarioetan garrantzi komunitarioko habitatak leheneratzea.
7. **Limas.** Life Cycle Innovation Management for SMEs. Europako Batzordearen CIP Eco-innovation.

ARGITALPENAK

- Plazaratutako argitalpenak: 37
- 2010ean behera kargatutako argitalpenak: 62.291
- Ihoberen argitalpenen baliagarritasunari buruzko balioespena: 7,3 puntu, 10etik.

PARTE-HARTZAILEAK JARDUNALDI TEKNIKOETAN

1.500etik gorako profesionalak parte hartu zuten Ihobek antolatutako ingurumenari buruzko 69 ekitaldi teknikoetan.



EUSKADIKO BIODIBERTSITATE ZENTROA, MADARIAGA DORRETXEA (BUSTURIA)

- 2010ean izandako bisitariak: 25.421
- Ikastetxe-kopurua: 83
- Ikasle-kopurua: 5.320
- Zentroko jardueren inguruko batez besteko poztasuna: 8,5 puntu, 10etik



HORNITZAILEEN KUDEAKETA

- Ihoberen Hornitzaileen Foroa - 2011.
- Hornitzaileek Ihoberekin duten gogobetetze-maila (10 puntu gehienez): 7,7

% 86 pozik dago

- Ihobe 2010eko Hornitzaileen Foroan parte hartu dutenen kopurua: 110
- Ihobek eta bertako pertsonen emandako arreta egokiari buruzko balorazioa: 8,1

% 88 pozik dago

- Kontratuen, ordainketen eta abarren kudeaketari buruzko balorazioa: 7,6

81 pozik dago

- Ihoberen beharrak, ildo estrategikoak, jarduerak egoki ezagutzea: 7,3

% 74 pozik dago

- Ihoberi ingurumen-jarduketarako sozietate publiko eta gizartearen ikuspegitik erantzule bezala egindako balorazioa: 8,3

% 93 pozik dago

KALITATEAREN KUDEAKETA

- Kudeaketa bikaintasunaren EFQM ereduaren Zilarrezko Q 2005ean.
- Kanpo EFQM egiaztapena, Euskaliteko ebaluatzaileen klubak 2009an eginga.
- 2010eko EFQM autoebaluazioaren emaitza: 466 puntu.
- Ingurumena eta kalitatea kudeatzeko sistemak: ISO 14001 eta ISO 9001 egiaztagiriak.
- Berrikuntza eta Zaintza Teknologikoaren Sistema: UNE 166002 eta UNE 166006 egiaztagiriak.
- Oleaz laborategiak erabilitako olioak aztertzeak ISO 17025 egiaztagiri teknikoak eskuratu du.

INGURUMEN-KUDEAKETA

- Mugikortasun Iraunkorreko Plana, Bilboko Bizkaia Eraikineko bulegoak eta Busturiako Madariaga Dorretxea barnean hartzen dituen.
- Ihoberen hornigai eta zerbitzu guztiak ingurumen-irizpideen bidez osatuta (Erosketa Publiko Berdea).
- Ihoberen webetik argitalpenak behera kargatzeari esker saihestu da atmosferara 8.839 kg CO₂ igortzea eta 61 zuhaitz moztea.

ARLO EKONOMIARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Ustiapen-aurrekontua: 14,8 milioi euro.
- Kapitalaren aurrekontua: 0,18 milioi euro.
- Aurrekontuaren gauzatze-maila: % 96.
- Autofinantzaketa-koefizientea (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak eman ez dituen sarrerak): % 6.
- Gastu orokorrak eta egitura: aurrekontuaren % 25.
- Proiektu berritzaileen aurrekontua, guztizkoarekin alderatuta: % 7.
- Efektu biderkatzailea: 2,5 (lhobek inbertitutako euro bakoitzak BPGren 2,5 euro sortu du).
- Finantza-zorpetzea: % 0.
- Hornitzaileei fakturak ordaintzeko batez besteko epea: 20 egun.
- Gauzatutako proiektuak eta zerbitzuak: 106.



AMAIERAKO
GAUZATZEA
2010eko KUDEAKETA PLANEAN
ESLEITUTAKOAREKIN ALDERATUTA,

% 96



EGITURA-KOSTUAK ETA ZEHARKAKO KOSTUAK AURREZTEKO PLANA

2010eko AURREZKI PLANA

Lhobek aurrezki-plan bat garatu zuen 2010ean, bere erosketak optimizatzeko helburu nagusiarekin, lanean bikaintasuna eta eredu garritasuna lortzeko, eta administrazio arduratsuen ikuspegitik.

Duela hiru urtetik hona lhobe bere produktu eta zerbitzuen erosketa eta kontratazio berdeen inguruko politikak garatzeko burutzen ari den ekintzak osatu dira aipatutako planaren bidez,

eta, hala, sozietatea maila gorenekoen artean kokatu ahal izan da erosketa publiko berdearen alorrean, bai autonomiaren zein Estatuaren esparruan, eta baita Europan ere.

Baliabideen optimizazioa funtsezko urratsa da erosketen inguruko politika arduratsua garatzeko hiru esparrutan: gizartean, ingurumenean eta ekonomian.

2010. URTEKO Ihobe TALDEA



ADRIANA AGATE AGUSTIN AINARA AINHIZE AITOR ALEXANDER ANA I. ANA ME. ANA RE. ANE ANDER ANTON ARANTZA L. ARANTZA O. ARANTXA BLANCA CARLOS CARMEN ENRIQUE ESTELA FERNANDO GIUSEPPE GORANE
GUILLERMO HELENA IDOIA IGNACIO IÑAKI A. IÑAKI S. ITZIAR IZARO IZASKUN JABIER JAIONE JAVIER JESÚS M.ª JOSÉ ANTONIO JOSÉ M.ª JOSÉ MANUEL KIKO JUAN IGNACIO LEIRE ES. LEIRE EL. LEYRE LOLI M.ª LUZ M.ª MAR
MAIDER MAIALEN MAITANE A. MAITANE B. MARÍA G. MARÍA J. M.ª SOLEDAD MARIAN MIKEL MIRIAM NAIA NEKANE PILAR RAÚL SALOME SONIA SUSANA TOÑIN UXUE VIRGINIA XABIER YOLANDA



ELKARREKIN GOAZ
BIKAITASUNERANTZ